

ZER
ALDIZKARIA

408n. zenbakia
2014 URRIILLA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Begoñako Andra Mari ta Euskal Mixioak



Maitatu gura eta ezin

2013ko SARI LEIAKETA. Laugarren saria



**Afrika'ko ipuin/alegiak
Piztien errian**

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2014-2015 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 47. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

47. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errokoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkiña : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: IBEGRAFIK
www.ibegrafik.com

BEGOÑAKO ANDRA MARI TA EUSKAL MIXIOAK

BEGOÑAN

1956´ko Iraillean zan.

Lau abade euskaldun gengozan Begoñako Andra Mariren eleiza nagusian.

Los Riosko mixioetara abiatzeko prestatu giñan. Eta Euskalerriari azken agurra emotera bildu giñan bertan.

Eta Meza bitartean, eta eskeintzak eta eskariak egiteko unean gengozala, nire amaren irudia etorri jatan, batbatean, gogora; aren irudia ta arek, nire txikitan, esandako itzok:

“Gu ezkondu giñanean, Begoñara egin genduan gure ezteguondoko ibiltea”.

Orduan entzun neban lenengoz “Begoña”, izen polit ori. Eta zenbat aldiz ez ote dot esan geroztik, itz zoragarri ori ?

Eta gauzok erabilli nebazan nire gogo barruan, meza bitartekoan:

Zer eskatu eutsoen nire gurasoak, egun aretan, Begoñako Amari?.

Gauza onik asko, ziur ! Eta ezkonkide on izan. Eta seme-alabak aziteko graziak, batez be.

Ondo baño obeto bete eben lenengo eskari ori. On eta santu izan ziran benetan, bai aita ta bai ama.



Santu-otsean il jatan aita, naiko gazterik oraindik. Eta santu otsean bizi jatan ama, sei urtez bere senarrarekin bizi izan ostean, 38 urtez alar-gun egoana.

Ondo bete eben, bai, gurasoek beren eginbearra. Ondo beteko ote neban nik be, orain astera nin-doan mixiolari bizimodu barri ori?.

Eta eskari au egin neutson, beren beregi, zeruko neure Ama, Begoñako Andra Mariri: bedeinka egizala nire bizitza eta nire mixiolaritzako lan barriak.

GURE ASMOA

Jendez blai-blai egoan eleizea. Eta abade ta abadegaiak nabari ziran, batez be.

Ez zan au bape arritzekorik !.

Lauetako abade bi gazteenak, Meza emon barriak ziran. Eta beste bi azitxuak, Arrindatar Donato ta biok, amabost urtez abadegaitegiko irakasle izandakoak.

Eta auxe zan gu bion kexka:

Emen, abadeak ugari, ugari ta nasai; zer egin be eztakiela, askotan; alkarregaz zirkin-zar-kun be, beste askotan.

An, barriz, Mixioetan, alegia, abadeen usañik be ez!

Gazteizko abadegaitegiko iru irakaslek burutu eben gure lenengo mixiolarien zortzikoa.

Arrakasta andi izan eban jokabide orrek abadegai eta abade gazteen artean.

Eta gauza guztiekaz gertatzen oi dana, poliki-poliki galduaz joan zan estandaren oiartzuna; eta beste estanda barri baten bearrean aurkitzen giñan.

Eta orixe zan gure asmoa:

Gure estanda barri orregaz, lengo arrakasta a barritzea, al baleike.

Urrezko eztaiak

1953an, au da, orain irurogei urte ospatu genduzan Begoñako Andra Mariren urrezko eztaiak.

Bizkaiko erriz-erri ibilli zan Begoñako Amaren irudi zoragarria, bertakoen fedea ta maitasuna biztu ta xuxpeltuaz.

Arteako abadegaitegian nengoan, bitartean, irakasle. Eta bertan euki genduan egun osoan, Aren irudi maitea, lorez jantzia, kantuz alaitua, otoitzez maitatua.





Zenbat maite ta ardurazko lan ordurako eta artarako, baña!

Aste bat aurretik asi giñan, basoz-baso, eta baratzaz-baratz, inguruko txartaka ta lore politen billa. Izai zugaitzezko erri-baso bat egoan, abadegaitegiaren ertzeko menditxuan.

Ara bota genduzan abadegaitegiko berreun mutil kozkortuak.

Eta batzuk abarrak iñausi, bestek ondoak ebagi, guk baso aretan egin genduzan trizkantzak !.

Batzuk jaso, bestek ekarri, ta urrengoak xortak egin, lorez, girgillez, izaiez, eta arkuiz bete genituan erriko plaza ta kale guztiak.

Eta urrengo egunean Lemoara, Andra Mariri ondo etorria emotera. Eta ango txalo, ta ango gorak!

Eta gero, Arrati guzti barrualdeko ibilbidea, abadegaiaik alboan jojaizala, beren "beka" gorriegaz jantzita, bide ondoko kerixak bailiran.

Eta inguruko baserrietan amonatuak, eskuko zapi zuriak astindu ta astindu; eta bide ondoko neskatxa urduriak, Ama Birjiñaren soiñeko ertza ikutu gurean; eta aurreko ta atzeko taldea, kanta ta kanta; eta guztion eta danen erditik, Begoñako Andra Mari, inguruko soro, baratz eta baserriak bedeinkatzen, Arratiko ibar guztia bedeinkatzen, bai!

Zeanuriko plazan amaitu zan zoragarritzko ibillaldia.

Antxe, Gisasolatar Maximo jaunaren etxe aurrean, ain zuzen.

Il barria zan Don Maximo; ala bearrez illa, Ekuadorreko lurralde beroetan. Begoñako Andra Marien seme maitale au izan zan euskal mixiolarien gidari.

Onek burutu eban euskal mixiolarien lenengo zotzikoa; eta berakin bat zituan arratiar bi be bai.

Arteako abadegaitegian egin geuntson gaubela Andra Mariri. An egon giñan abade ta abadegaiaik, otoi eta kanta, eske ta eskeinka, ¿Zer eske ta zer eskain? Mixiotan dabiz, orain, orduko zenbait abade eta abadegai,...!

Itsasaldeko erri alaietara jo eban gero Begoñako Andra Mariren ibillaldiak. An egoan Ondarruko muga-mugan Saturrarango, abadegaitegia.

Eta ara joan giñan jaiera bioztia dastatzearren. Eta ez giñan zuziatu.

Etxe guztiak, era ta margo guztietako oiaiez jantziak; eta oialak lorez beteak; eta kale luzeak, arku ederrez josiak; eta eskallera estuak lurretik arkuetara; eta andra bizkorak, eskailleraz gora bera, maillu ta untze ta lore sortak eskuetan,...

Bai, girgillez jantzi ta apaiduriko itsasontzi galanta irudian Ondarruko erri osoak.

Zer dala ta,?

Artaburu zabalez egindako, arku bateko idazpuru onek esan eustan zergaitik zan guzti ori:

“Ume,ixillik! Ama dator-eta”.

Zeruko Ama etorran, bai, itsastar bere seme leialak bedeinkatzera bai!

Eta Zeruko amaren bedeinkapen ugariaren eragiñaz, bertako sei seme jatorrak Mixiotako bidea artu eben, Saturraranen irakasle egoan Basterretxeatar Andoni buruko ebelarik.

DERIO

Arratiko Artea itzi, ta Derioko abadegaitegi barrira aldatu giñan, urte aretan artantxe.

Eta zer Zaindari, zeñen irudi jarriko ote genduan gure elizatzu barrian, eta Andra Mariren irudia ipintea gogoratu jakun guztiori.

Eta alan egin be. Antxe dago Begoñako Andra Mariren irudi maitea, irridario, aldareko atzeko orma zabalean.

Eta orma orren ezkerreko alderdi luzean, margo bizizko marrazki politak, Kristoren irudi maitea buruko dagolarik; eta abadegai mordo bat Aren oñetan, Ari begira ta Aren deiaren zai.

Eta eskualde besteko alderdian, lengo abadegaiak, abade biurtuta, Jaunaren Barri ona sinisbakoei aldarrikatzen.

Abadegaien barruko gidari edo animako aita nintzan ni, artean.

Eta aurreko orma orre in irudiak nitun, sarritan, gau ta egun egiten neutsezan itzaldietako zirikagarri.

Gero be, sarri biltzen ziran gurera, oporretan etorri oi ziran mixiolariak. Eta alak esan eta agertuten euskuezan gauza nabarmenak nituan, bestalde, nire gaien aberasgarri.

Eta leen Artean legez, jolaserako zelai ta leku barik egozan abadegaiak orain, Derion be. Eta opor orduetan geldirik egozan mutillei esaten neutsien nik:

-Tire, mutillok jokatu bada; ustelduko zarie ezpabere or geldi-geldirik.

-Ez daukagu non eta zelan jokatu, baña!, erantzuten eustien goibel eta kopeta illun.

Adierazi geuntson Gotzai Jaunari gure mutillen kexka ori. Eta, ez egoala orretarako dirurik erantzun euskun.

Alan azaldu neutsien, urrengo egunean, gure mutillei:

-Ez dago jolas-lekurik egiteko dirurik, mutillok!..
Eta zuek jokatu gura dozue, ez ba?



- Bai Jauna, bai.!
- Baña, zelan.?
- Geronek egingo doguz gure jolas lekuak!
- Orrela badozue, neronek gidatuko zaituet.

Eta an ibiltzen giñan, egun eta ordu guztietako oporetan, jo ta ke: atxur, pala, pegaki ta pikatxoi.

Eta auxek ziran nire esaldi beñenak, mutillok lanean eragitearren:

- “Ala, mutil, gure Mixioetako “Montubien”alde, ordu osoko lanaldi bizkor”.

Illero joaten giñan, eta oñez, Derioko abadegaitegitik Begoñako eleizara, eguraldi on egiten eban arrasti batean.

Errosari santua, kanta ederren artean; bein-beñeko itzalditxua, urren; eta gure Jauna agiriaren onets-agurra amaierako.

Eta ango osterean, guk genkargazan irrintzi, salto ta brinko, Santo Domingoko aldapaz beera!

Eta zein polit iruditzen jakun gure oñeko Txorierrri ibar zabala!

Eta zein eder ageri jakun gure Derioko abadegaitegia, Txorierrriko itsaso berdexkara abiatu gure zan itsasontzi galanta zirudian.

MIXIOLARI

Berrogei urtegaz, abiatu nintzan Mixioetara.

- Eta zergaitik ez aiz leenago abiatu ? -esan eustan lagun batek.

Ez dira ez, urte eldu orreik, Mixioetara joateko urterik onenak.

Nire lagun min eta ikasle bik osotzen eben lenengo txandako zortziko bikaina.

Mira ederra egin eustien, bai; baña kezka larri batek eragotzi eustan areikin batera abiatzea.


Zer eta zelango kezka ?

Euskera irakaslea nintzan, gure abadegaitegian.

Orretzaz gañera, elerti, kondaira eta lutesti edo geografiaren maisu be nintzan.

Eta euskal gizon, gauza ta lurraren barri emoten neut sien nire ikasleei, gaiok arrotzen nituan bakoitzean, naiko esteku ta eragozpenen artean, emon be, eta auxe nire kezka:

Nork artu ta azalduko deustie abadegaiei euskalkulturako gaiok, ni emendik aldentzen nazanean ?



Alan ba, Bilboko eleizaren kanonigo leiaketa bat sortu zan gure artean. Kondaira gaiak arrotu ziran, leiaketa orretan. Eta gure abadegaitegiko Eleiz-kondairaren irakasle izango zan, bertan garaille urtengo ebana.

Au dok nire ordua, esan neban nirekiko. Zunzunegi jauna Gazteizen irakasle, Telletxea Donostin, Goñi Iruñan, eta ni Bilbon, auxe dok Euskal-edesti eskola sortzeko une ta aukera ederra! Auxe zalako gure maixu ta euskal mixioen zuzendari zan Zunzune-gitar Jose jaunaren betiko ametsa.

Begoñan bildu nintzan, aste biko leiaketa orreri buru emoteko asmotan.

An ekin neutson, gau ta egun, nire esku arteko lan eta arazo orreri.

Begoñako Amari erregutzen neutson, bertan emoten neban eguneroko Mezan, lagun etorri jatala, alegia...

Baña oker jo eustan kukuak!

Ez zan ori, nonbait, nik zapaldu bear neban bidea.

Bestea zan nire bide ori. Eta etorri jatazan, orretarako pausoa emoteko bear nebazan lagunak. Nik, abadegaitegian erabilten nebazan gai ei lotu aal leikean, irakasle barriak, bai: Barrutia, Olazabalaga, Etxenagusia jaunak! Nire ikasle izandakoak, azkenengo biok.

Geroago be, Mikel Zarate ta Ander Manterola etorri ziran. Lagun

orrei nire eskuarteko lana itxi, eta or abiatu nintzan, alai eta pozik abiatu be, gure Mixioetako lanetara.

MATXALAN

El Oroko uriburu dan Matxala izan zan lantokia Ekuadoren.

Eta Matxalako Zaindaria, Andra Mari, ain zuzen be!

El Oroko erki edo probintziako uriburua, anditzen doan Uriburu polita da Matxalako erri ori. Ori dala ta, goitzain mallara be, oraintsu igoerazi dabena.

Ala ta guztiz, danen premiñan dago erri eskaxa: eleizea, abadetxea, gotzainetxea, eskolak, eta batez be zintzoen bear gorrian dagoan erri eskaxa, bai!


Eta zelan, eta esku utsik eldu, arazo larri guzti orrei?


Esku utsik gengozan, bai, baña, Andra Mari genduan Zaindari.

Eta Andra Mariri erreguz, eta lanari mailluz, or abiatu giñan mixiogintzan, su ta gar.

“Andra Mariri erreguz”. Maiatza guztiko egunetan, eta Ama Birjiñaren jaietako bederatziurrenetan, Errosario Santua esaten genduan, egun-sentian eta erri osoko kalez-kale. “Rosario de la Aurora” deitzen deutsoe bertako eliztarrak elizkizun oneri.

Beingoan eta ordu berean argitzen dau egunak ango lurraldetan; goizeko bosterditan





TXILLAN

asten da lenengo argixirrinta, eta eguna argi dago seiretako.

Eta zeruko argi-xirrinta orreri gure beatz arteko kandel-argiakaz batera, argituz gingoazan erriko plaza ta kaletan.

Kaleak kandelaz argituz, eta etxeak otoitzez bertuz, eta biotzak kantaz alaituz !.

Bertakoak lendik ekiezan kantaz gañera, beste kanta barri batzuk be erabiltzen genituan.

Bizkaian Begoñako Andra Mariri kanta oi doguzan kantak ziran. Arein bertsoak, apur bat aldatu ta guk eureri erakutsi geuntziezanak.

Eta eurek bai arin ikasi, ta pozik abestu be...

Andra Mariaren irudia eroaten gendun gurekin. Eta aren iraganen eta aren aurrean, etxeetako argiak piztuten joiazan, eta atea zabaltzen.

“Eta lanari mailluz” ekiten geuntson, gero !.

Aberatsei dirua eskatu; gitxi ba ia ba da an be aberatsik. Langilleria batu. lanari lotu...

Eta agertu ziran eleizak, etxeak, eskolak, gaxoetxeak...

Agertu, azi, garatu !

Eta kristauez bete ziran etxeok; kristauez, Matxaleko kaleak !

Zelan?

Andra Marik bakarrik, daki !

Santutegi ezagun bi daukoz El Oroko erkiak : Matxala ta Txilla.

Sarkaldean dago Matxala; sorkaldean, barriz, Txilla. Gezaldun zelai zabala da sarkaldeko lurraldea, ta itxasoa dauko baztar muga.

Basoz jantzitako mendi-katea da sorkaldeko lurraldea; ta Andeseko mendi tontorrek ditu basoguren.

Itsaz bastarrean dago Matxala; basagurengo tontorrean, Txilla.

Itsaz basterreko itsazgizonei argi egiten dautse Matxalak; erki osoko bizilagunei Txilako Andra Marik.

Eta Andeseko atxetan kokatutako uso zuria dirudi. Bera da El Oroko Zaindari. Oraintsu koroatua.

Ez edozein erara !.

Zaletasun andi eutson erriak, bai! Mara-mara joiazan erromesak.

Zortzi orduko bide luzea egoan bertaraño. Ia iru milla metroz gora joian bidetxior loitsu ta latza. Eta ezin ba, zarrak eta gaxoak, bide orretan aurrera egin.

Eta asi zan bertako abade zan Lekuonatar Juanito mihiolaria: bide barri bat egin bear zala ta, automobilak gora ta bera ibilli zitezken bide barri ta zabala...

Eta jo eban deia auzo-lanetarako

(MUNETXEK atondua)

Afrika'ko ipuin/alegiak

Piztien errian

Ez iñoz alboratu zarren aolkuak. Oneik asko dakie. Eta onein aolkuak alboratzeak

Ekarri daikez ondoren txarrak, alegi edo ipuin onetan agertzen dira

Untxi edo "koneku" batek, atzeko anakak luzatuz esan eban:

-Gure bizitzea bai ba-dala ganorabakoa!

Azagari edo lukitxuak erantzun eutsen:

-Bai. Zenbat urte igaro diran eta baso-baltz onetan ez dago barririk!

Gero leoitxuak egin eban berba:

-Eta nire aitak, lo-aurrean, aspertu egiten nau bere aldiko edestiakaz! Siketa aundiak ziranean, izardia emon bear izaten zan janariak aurkitzeko eta gaur, orain eguzkia eta orain euria, gabiltz eta dana jatorku berez. Zuek gazteok ez dakizue nekatuta egotea zer dan be!

Untxiak erantzun eban:

-Ez uste izan olako berbak zure aitarenak bakarrik diranik, guri be auxe esaten dausku:

-Seme-alabatxuok! dirua aurreratu egizue eta asko dagon onetan gorde gitxi egongo da-nerako!

Olako lagunakaz ezin geintekoz bizi!

Beleak entzun eban ori zugatzetik eta karrazkatu eban:

-Itzi daiguzan emen gure zarrak negarrez eta goazen gazteena izango dan lurralde batera!

Lukitxuak esan eutsen:

-Orreik bai zentzunezko berbak! Gure gaztaroa ez dogu galdu bear!

Guztiak alkartu eta joan egin ziran pozik. Erguzkia oztendu zanean, laurak geratu ziran leiza baten jateko.

Lukitxuak esan eban:

-Ekarri dau iñok jatekorik?

Beleak erantzun eban:

-Au bai gure zori txarra! Aiztu egin jaku! Baiña zuek ez estutu, neuk artuko dot ardura ori.

Gerotxuago etorri zan belea pikua utsik eballa eta esan eban:

-Benetako zori txarra gurea! Baiña entzun dot mendi onein ostean aran emonkor bat dagoa-la.

Laurak gosekillik, bidea artu eben barriro eta leoitxuak esan eutsen:

-Gure zarrak agirika egiten euskuen, baiña jaten emon be bai.

Guztiak isillik zirala, bide luzea egin eben. Eguzkia agertu zan mendi-gaiñean, gero beste aldean oztendu zan eta laurak aspertuta eta gosez jarraitu eben



-Ementxe geratuko gara- agindu eban leoiak. Guztiak etxundu eta lo egin eben.

Gaberdian izartu zan lukitxua eta esan eban:

-Au da gosea,au! Eta alboan egoan beleari esan eutsen:

-Zuk sartu gozuz arrisku onetara.

Eta beste bagerik, luma ta guzti jan eban. Eta goizean besteai itaundu eutsen:

-Non dago belea? Eta lukitxuak,lotsa bagerik esan eban:

-Etoi alako orrek iges egingo eban.

Irugarren egunaren illuntzean, untxiak ez eban jarraitu gura eta leoiak esan eutsen:

-Benetan diñotzut! Gazteen arana ur dago!

Geratu gaitzean ba-esan eban lukitxuak untxia jateko pozagaz ezpanak miazkatzen ebazala.

Urrengo goizean ez ziran agiri leoia ta lukia baiño:

-Non ete dago untxia-esan eban leoiak.

-Ziur-ziur, bart ez eban jarraitu gura eta beleari jazoa jazoko jakon.

Eta, bi baiño ez ziran lagunak, barrero bidea artu eben alkarri zintzotasunaren ziña eginda. Une baten leoiak esan eban:

-Lukito! Zu bizkor zabiltz, nekatu bagerik!

-Ai ene,Leoi lagun! Gu lukiok zalak eta sendoak gara!

-Ba nire susmoa da zeuk jan dozuzala belea ta untxia!

-Ba-daukazu burutasun bakoitxik!- esan eban lukiak.

-Lau egun goaz bidez eta leioa nazen au goseak iten nago eta zu luki errukari ori sendo! Edo goseak ilgo nau edo...

Lukia tximurtu egin zan baiña gaiñean somau eban leoiaren oiña eta onek agokaldi bitan jan eban.

Menditxua igaro ebenean basobaltzeko buru zan leoia eldu zan belea ikusia zan aran emonkorrera.

-Ez dot ondo egin geratzen jaten lagun ona ilteagaz. Emen biontzat lekua egoan pozik bizi izateko. Negar-malkoak zikatzen egoala, eiztarien berbea entzun eban leoiak:

-Au bai pizti ederra! Arrapau daigun narrua zulatu bagerik.

Leioak ikaraz ingurura begiratu eban, baiña berandu zan! Azta-makilleak bere samea zulatu eban eta il egin eban.

Mendiak baiño arago,untxiaren,belearen,lukiaren eta leoiaren guraso zarrak bertso au atera eben:

Bizimodu ohea nai dauanak
daukona galduko dau;
itxas-ontzia beeratu
eta itxaspean ondatu

† OLAZAR'tar Martin'ek
Eta itxasoan maituko dau



Oroitzaz inguraturik

Oroitzaz inguraturik
geroko bizitzaro noa
bidetik lorak ereinduz
nire begipeko lorak.

Basati eta opolak dira
batzuk arantzadunak
usaintsuak beste batzuk
guztiak paregabeak.

Malkoaz bustiak dira
molkoaz eta irriaz
abestioz seazkaturik
itz gozoakaz zainduak.

Atzetik bazabilkidaz
aukeratu nai dozuna
lurretik maitekiro artu
eta zaindu nire oroitzaz.

Palmi Merino



Urrezko Ezteguak 1963-2013 Lourdes eta Paulo-ri, zoriona!

Idazle on baten berri
nekaezin trebea
barne muietik berriz,
bai, euskaltzalea !
Gogotik lantzen digu
euskera gurea,
famili buru zintzo,
or bere bidea,
Au, Paul Atutxa dogu,
ezin da ohea !

ZER-en agertu zaigu
oso berri ona
eta lagun on batek
bertsotan narama.
Urrezko ezteguak ,
maitasun sakona,
Lourdes eta Paulo-ri,
zuei , zoriona!
Jainkoak bedeinkatuz
andra ta gizona.

Joxemari Murua
EUSKERAZAINTZA-koa

Maitatu gura eta ezin

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2013ko sari leiaketa. Laugarren saria

Lurra landuz eta jak talde txiki bat gobernatuz bizi ziren. Oso pobreak ziren. Familiaren etxea erreka baten egoaldeko bazterrean zegoen, eta inguruko larreetako belarra mee eta eskasa zenez, sarritan seme bakarrak jak taldearekin ibai zabala zearkatu eta ibilaldi luzea egin bear izaten zuen iparralderantz, bazka ohea lortzearren.

Bidaia aietariko baten, neska gazte ederra ezagutu zuen. Berau ere gurasoen jakak zaintzen ari zen, baina abere talde askoz ugariagoa zeukan eta mutilla bereala konturatu zen neska ura ez zela txiroa.

Animaliak larrean zebiltzan bitartean mintzatzen egon ziren, euren familia, gogo eta ametsei buruz. Neskak esan zenez, iru neba zeuzkan eta txandaka aritzen ziren jak taldea zaintzen eta gobernatzen. Mutillak ere bere bizimoduaren berri eman zion neska ezagutu berriari.

Berriketan luzaro eta goxo-goxo egon ondoren, bakoitza bere etxera itzuli zen.

Egun artatik aurrera, mutilla sarriago asi zen ibaia zearkatzen, neskarekin elkartzeko irrikan.



Luze barik, gazteak elkarrekin maitemindu ziren. Neskak bazekien amari ez zitzaiola ura gustatuko, konpromisoa hartuta baitzeukan alaba auzoko beste gizon batekin ezkontzeko. Ori dela eta, bikoteak ezkutuan elkartzen jarraitu bear izan zuen.

Egun baten, Mutillak turkesazko belarritako bat erosi eta neskaren ile adatsean kiribildu zuen, iñork ez ikusteko moduan. Era orretara amodiozko konpromisoa adierazi gura izan zion, baina neskak pena itzela sentitu zuen une artan, bai baitzekien amak ez zuela inola onartuko erlazio ura.

Denboraren poderioz ama susmo txarra artzen asi zen, alabak, etxean des-kantsatzen geratu bearrean, jak taldearekin gurago izaten zuela ikusita.

Bein neska gaztea ilea orrazten ari zela, turkesazko belarritakoa lurre-ra erori zitzaion, amaren oinetara, ain zuzen. Berau sutan jarri zen eta alaba oparia norena zen aitortzera beartu zuen.

Urrengo egunean, seme nagusiarengana joan eta zera esan zion:

- *Artu gezi au eta mutil madarikatu ori ikusten duzunean, il ezazu erruki barik.*

Gezia artu eta abiatu zen semea, baina arrebaren maitalea aurkitu zuenean, ez zen gauza izan mutilla akabatzeke, eta onela berba egin zion:

- *les egin ezazu mendi aldera. Bela bat ilko dut eta bere odolean bustita eramango dut gezia etxera.*

Alaxe egin zuen, baina amak gezia erriko lamarenera bidali zuen. Beronek mezu bat bidali zion andreari, geziburuko odola, gizaki batena barik, bele batena zela jakinaraziz.

Ama zearo aserretu zen. Orduan bigarren semearengana jo zuen.

- *Artu gezia eta il ezazu mutilla!- agindu zion.*

Bigarren semea elburu orrekin abiatu zen, baina arrebaren maitalea ikustean anaiari bezala gertatu zitzaion eta onela berba egin zion:

- *les egin ezazu mendi aldera. Katamixar bat ilko dut eta bere odolean bustita eramango diot gezia amari.*

Baina amak bigarren onetan ere erriko lamari bidali zion gezia, eta osterera ere izan zuen amarruaren berri.

Andrea sutan jarri zen, alabaren mutil laguna leenbaileen ilda ikusi nai baitzuen. Orduan gazteenari deitu eta au esan zion:

- *Mutilla gezi onekin iltzen baduzu, aitak niretzat utzitako urre mordoarekin sarituko zaitut. Uts egiten baduzu, berriz, nik neuk akabatuko zaitut.*

Irugarren semeak, orduan, gezia artu zuen eta arrebaren lagunaren bila abiatu. Bereala aurkitu zuen larre artean, baina orduan zalantzan asi zen. Batetik ez zuen gazte ura il gura, baina bestetik bazekien bere bizitza arriskuan zegoela amaren agindua bete ezean. Orduan zera pentsatu zuen: "gezia bere kontra jaurti bai, baina anka baten sartuko diot; orrela zauri txikia baino ez diot egingo".

Alaxe egin zuen, eta gero gezia etxera eramanean zuen. Orduko artan erriko lamak odol ura gizaki batena zela baieztatu zuen eta andrea oso pozik ipini zen. Ziur zegoen ainbeste gorrotatzen zuen mutilla ez zela bizi-rik aterako, zerren, inori ez esan arren, seme gazteari geziburua pozoiz bustita eman baitzion.



Alabaren maitale gaixoak zauriaren ondorioz min andia igarri zuen eta gurasoen etxera itzuli zen.

Urrengo egunetan gero eta makalago sentitzen asi zen eta ez zuen indarririk izan jak taldearekin larrera joateko. Ozta-ozta zen gauza etxetik irten eta ibai zabalaren beste aldeko bazterrera urbildutako neska lagunarekin oiuka mintzatzeko.

- *Zelan duzu anka gaur?- galdetzen zion maitaleak egunero.*

- *Biotzeko mina askoz andiagoa da ankakoa baino- izaten zen oiko erantzuna.*

Mutillaren egoera gaiztotuz joan zen eta neskatila kezkatzen asi zen.

Beste egun baten neskak oiko galdera egin zion lagunari eta beronek onela erantzun zion:

- *Ene maitea, uste dut bizitza onetan ez garela berriro elkartuko; biar arte iraungo ez ote dudan susmoa daukat. Biar ibai bazterrera zatozenezan zervuan ostadarra ageri bada, neure eriotzaren seinalea izango duzu ori.*

Urrengo egunean neska arineketan abiatu zen ibai ertzerara, baina ara ailegatzean ostadarra ikusi zuen zervuan. Orrela, bere maitalea ilda zegoela jakin zuen; lurrean jesarri eta negarrari eman zion, biotza urraturik sentituz.

Orduan, ezerezetik zetorkion mutillaren aotsa aditu zuen, kantuan emeki-emeki:

*Ura asita dakar
menditik ibaiak.
Ez estali negarrez
gure barre alaiak.*


"Elkar maitatzen segi"

*dio bion naiak.
Ez gaitu bananduko
sekula etsaiak.*

Etxera itzuli eta ama aurkitu zuen zain. Beronen oinetara jausi zen eta negarrez asi zitzaion. Mutillaren iletetara joaten uzteko erregutu zion. Baimena emanez gero, kexurik gabe ezkonduko zen amak aukeratutako gizonarekin.

Amak onartu egin zuen alabaren proposamena eta biak joan ziren, etxeko neskamearekin, maitalearen iletetara.

Ara eldu zirenean mutillaren gorpua ibai bazterreko egur metaren gainean ikusi zuten. Familiak su txikia biziagotzeko aaleginetan ziarduen, alferrrik jardun ere. Orduan neska gazteak soingainekoa



kendu eta maitalearen gorpu gainera bota zuen. Bereala sugar andiak atera ziren. Gero zapatak jaurti zituen eta sua are geiago anditu zen. Azkenean, zerbitzariak ekarritako kriseilua artu, bertako olio bere gorputz gainetik isuri eta sutera bota zuen bere burua, ama ikaraturik begira zeukala.

Sugarrak amatatu zirenean, gazte bien ezur-utsak naasturik geratu ziren. Orduan ama biek maitaleen austerreak banatu egin nai izan zituzten, ibaiaren bazter banatan lurperatzeko asmoz.

Neskaren amak zera galdetu zuen orduan:

- Zure semeak zeri zion beldur geien?
- Sugeei -erantzun zuen mutillaren amak- ; eta zure alabak?
- Igelei.

Orduan suge bat eta igel bat ipini zituzten gorpuen ondakinen artean, eta austerreak banatu egin ziren.

Multzo bakoitza ibaiaren bazter baten lurperatu zuten; mutillarena egoaldekoan eta neskarena iparraldean.

Andik zuaitz andi bat azi zen ibaiaren alde bakoitzean, eta luze barik euren adar luzeak, ibai zabalaz zearkatuta, airetik lotu ziren.


Neskaren amak zuaitz biak ebakitzeko agindua eman zuen. Alaxe egin zen, baina egun gutxi geroago, zuaitzak egondako lekuan zuaixka bi azi ziren eta zuaixka bakoitzean txori bat agertu zen. Txoriok elkarri kantuan jarduten zuten eta egaz eginez bildu eta olgetan ibiltzen ziren.

Neskaren amaren aginduz, txori biak akabatu eta zuaixkak errotik atera zituzten, inolako arrastorik utzi gabe.

Txorien izpirituek zerurako bidea elkarrekin egin zuten eta arrak zera esan zuen:

- Badirudi ez garela inoiz elkarrekin egongo.
- Egongo gara- erantzun zion emeak-. Zu joan zaitetz mendebaldera, gatz dagoen eskualdera eta ni tea dagoen lekura joango naiz.

Alaxe egin zuten eta gaur da eguna Tibeten tea prestatzen dutenean, teari gatz botatzen diotena; eta ori egiten duten bakoitzean maitale biak berriro elkartzen dira. Beintzat orrela dio elezaarrak.



IRUGARRENEKO ALARGUNA

Nire auzokide bi, andra alargunak eurak, garbitu barriak ziran soiñekoak legortzeko eskegiten egozan. Au ez da arritzekoa, egunero ta edozein egoitzan jazoten dana da ta. Euren alkar-izketa, berako mailan bizi zan atsotxuaren buruz izan zan. Euratariko batek bere lagunari oían iñotsan.

Au gure goiko atso gizajea be orain...

Nor? Katalin, irugarreneko andra alarguna?, diñotso besteak, zer jazoten jako ba?

Bere alaba biak ezkondu dira, ta orain nora joango ete da bizitzen. Oraingoz bere egoitzan geratuko da, baiña tamala da, jarraitu eban.

Zer ba, gaixorik da ala? Besteak erantzun eutsan.

Ez orregaitik ez da. Lengo egunean beragaz izketan egon nintzen, eta emen, bertan geratu bearko dauala uste dot.

Bai, zergaitik?

Ba dakizu, suiñak Eibar eta Balmasedatarrak dira, ta alaba biak euren gizonen errira joan dira bizitzen.

Bai, eta zer?, iñoan euretariko batek, olan izanik, ba dauka nora joan.

Ain zuzen be, orrexegaitik naigabea sortu jako ba, leenengoak esan eutsan.

Eibarrera ala Balmasedara nora joan ez jakinik dago atsotxua, ala?, iñoan besteak.

Ez, ez, Katalin bera, ba dakizu on bat da, andrazko on bat da, gertu dago erri batera zein bestera joateko. Suin batek amagiñarrabea Balmasedara joatea nai dau, ta besteak Eibarrera joatea.

Olan dala, amagiñarrabeak asko maite dabe, andratariko batek iñoan.

Maite? Bai zera... Eibarko suiñak Balmasedara amagiñarrabea joan daitela gura dau, ta Balmasedakoak Eibarrera.

OTAZUA TAR BENITO



Euskal astea

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2014-11-24.- URANGA´tar Erika: Euskal Erriko Memoria Historikoa.

2014-11-25.- LARREA´tar Angel: Euskaldunok eta etorkizuna identitatea globalizazioan.

2014-11-26.- LARREA´tar Angel: Azken ikerketak euskerearen inguruan.

2014-11-27.- BARROETA´tar Klaudio: 100. ZUBIKARAI´tar Augustin.

2014-11-28.- ATUTXA´tar Paul: Euskal Edestia.



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2ª esk.

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK

Ordua: **Zazpiretan**

EUSKERAZALEAK

IPUIN SARIKETA

Mesedez bialdu CD, disketea edo internet bidez: info.euskerazaleak@gmail.com

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urtarrillean.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.

Gernikako arbola
da bedeinkatua
Euskaldunen artean
gutziz maitatua.
Eman ta zabal zazu
munduan frutua
adoratzen zaitugu
arbola santua

Mila urte inguru da
esaten dutela
Jainkoan jarri zuela
Gernikako arbola.
Zaude bada zutikan
orain da denbora
eroritzen bazera
arras galdu gera
Ez zera eroriko
arbola maitea
baldin portatzen bada
Bizkaiko Juntia.
Laurok artuko degu
zurekin partea
pakian bizi dedin
euskaldun jendia.

Betiko bizi dedin
Jaunari eskatzeko
jarri gaitezen danok
laister belauniko.
Eta biotzetikan
eskatu ezkerok
arbola biziko da
orain eta gero.

Arbola botatzia
dutena pentsatu
Euskal erri guztian
denak badakigu.
Ea bada jendia
denbora orain degu
erori gabetanik
eduki bear degu.

Beti egongo zera
udaberrikoa
lore aintzinetako
mantxa gabekoa.
Erruki zaite, bada,
biotz gurekoa
denbora galdu gabe
emanik frutua.

Arbolak erantzun du
kontuz bizitzeko
eta biotzetikan
Jaunari eskatzeko,
gerrarik nai ez degu
pakea betiko,
gure lege zuzenak
emen maitatzeko.

Erregutu diogun
Jaungoiko Jaunari
pakea emateko
orain eta beti.
Baita indarra ere
zerorren lurrari
eta bendizioa
Euskal erriari.



Gernikako arbola